



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 21a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsoa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedientea geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte. Sustapen Batzordeak bazter utzia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakitekoa zer zuzemen egin dituen eta egiteko asmoa duen Gizarte Politiketako kontseilariak, Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazka bukatzen laguntzeko, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (6. or.).

—Galdera, hitzarmena negoziatzeko Nafarroako batzordea parlamentu-talde guztien parte hartzearekin deituzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (6. or.).

—Galdera, Club Atlético Osasunak Nafarroako Gobernuarekin daukan zorrari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (7. or.).

—Galdera, Club Atlético Osasunaren zorrari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak duen erantzukizunari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Foru Lege proposamen bat aurkeztu dute zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak betekizun berriak ezartzen ditu sozietate publikoek abalak eta maileguak eman ahal izateko.

Aipatutako foru legeak, 75.1, 82.bis eta 82.ter artikuluetan, ezartzen du ezen bai abalak bai maileguak ematea foru lege bidez baimendu beharra dagoela, eta legezko aurreikuspen bat ezartzen du bi kasuetarako; legezko aurreikuspen horren arabera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak mailegu eta abaletako uneoroko gehieneko arrisku bizia ezarriko du, bai eta biek ekitaldi bakoitzean izanen duten gehieneko bolu-mena ere.

Hala eta guztiz ere, oraingo inguruabarrei erreparatuta, Nafarroako sozietate publikoei dagokien aldaketa horren aplikazioa ezin da denboran bat etorrarazi Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreikuspen batekin, zeren eta lege hori ez baita onetsi azken bi ekitaldietan. Horrenbestez, araubide iragankor bat ezarri beharra dago, zeinak sozietate publikoei gutxieneko operatibotasuna emanen baitie mailegu eta abalei dagokienez, une hauetan eragiketa horiek ez daitezen ezinbestez lotuta egon aurrekontuei buruzko legearekin.

Artikulu bakarra. Xedapen iragankor bat gehitzen zaio maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeari, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren

4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duenari. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra.

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 75.1 eta 82.ter.1 artikuluetan aurreikusitakoa betetzen ez den bitartean –sozietate publikoek abalak eta maileguak emateari buruzko baimena Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bidez eman beharri dagokionez, haietako gehieneko arrisku bizia eta gehieneko bolumena ezarrita–, baimena ematen da sozietate publikoek abalak eta maileguak eman ditzaten, betiere honako urtealdi-muga hauekin:

– Urtean eman daitezkeen abalen gehieneko bolumena: 15 milioi euro.

– 2014ko ekitaldirako abaletako gehieneko arrisku bizia: 185 milioi euro; kopuru hori egungo gehieneko arrisku biziari 15 milioi euro gehitzearen

emaitza da. Hurreneko ekitaldietarako, abaletako gehieneko arrisku bizia zera izanen da, aurreko ekitaldiaren amaieran dagoen gehieneko arrisku biziari 15 milioi euro gehitzearen emaitza.

– Urtean eman daitezkeen maileguen gehieneko bolumena: 30 milioi euro.

– 2014ko ekitaldirako maileguetako gehieneko arrisku bizia: 180 milioi euro; kopuru hori, egungo gehieneko arrisku biziari 30 milioi euro gehitzearen emaitza da. Hurreneko ekitaldietarako, maileguetako gehieneko arrisku bizia zera izanen da, aurreko ekitaldiaren amaieran dagoen gehieneko arrisku biziari 30 milioi euro gehitzearen emaitza”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako Abiadura Handiko Korridorea eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioa heldu da 8-14/ITP-00010 jabelduratik, zeina 2014ko urriaren 9ko Osoko Bilkuran eztabaidatu baitzen.

Garraio publikoa eta kalitatezkoa herritarren eskubide bat da, eta administrazio publikoei dagokie hori ziurtatzea. Trenbide-garraioari dagokion orotan, agerian gelditu dira Nafarroako Gobernuak "abiadura handiko Nafarroako korridorearen" proiektua bultzatze aldera egindako ahaleginak.

Korridore hori finantzatze aldera Nafarroak eta Estatuak sinatutako lankidetzaren hitzarmenak –Miguel Sanz jaunak eta José Blanco jaunak 2009ko apirilaren 9an sinatua– bi aldeen arteko konpromiso-sorta bat jasotzen zuen, obren finantzaketari buruzkoa, obren egutegi bat ezartzeaz gain.

Hitzarmena sinatu zen egunetik, asko izan dira Estatuaren aldetiko ez-betetzeak, bai dagokion finantzaketari dagokionez, bai hitzarmenak ezartzen zuen obra-zatia egiteari dagokionez. Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak beste hitzarmen bat eskatu du, Foru Komunitatearen interesentzat onuragarriagoa izanen dena.

Halaber, Zaragozatik Euskal Y-arekiko lotuneraino doan korridoreari buruz Espainiako Gobernuak dituen planak berak ere nabarmen aldatu dira.

ADIFeko eta Ekonomia Ministerioko arduradun gorenaren adierazpenek argi uzten dute planteamendu berri bat dagoela abiadura handiari dagokion orotan. Hortaz, Nafarroa eraikitzen ari den tarteetako obrekin jarraitzeak ez dauka zentzurik; ez, bederen, abiadura handiko trenbide-sare osoari buruzko planteamendu berri bat egon arte. Izan ere, ADIFeko lehendakari Gonzalo Ferre jaunak argi adierazi zuen jasangaitza dela abiadura handiari buruzko egungo politika.

Ez dezagun ahantz obra horien aurkako oposizioa gero eta handiagoa dela herritarren artean, herritarrek txunditurik ikusten baitute nola egiten ari den Nafarroako Gobernua beste inbertsio batzuetara bideratu beharko litzatekeen ahalegin ekonomiko bat. Are gehiago, inolako bermerik ez dagoenean Nafarroako tarteak hegoaldean Zaragozarainoko eta iparraldean euskal Y-rainoko jarraitutasuna edukitzeari dagokionez.

Hitz batean, proiektuaren bideragarritasunarekiko ziurgabetasuna ikusita, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehalako moratoria bat ezar dezan, Nafarroako abiadura handiko korridorea

eraikitzearekin zerikusia duen orotan proiektuak prestatu eta betetzeari eta baliabide publikoak bideratzeari dagokionez.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Txentxo Jiménez Hervás

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko urriaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erretira dezan Konstitu-

zio Auzitegian jarrita daukan errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren aurkakoa.

2. Nafarroako Parlamentuak zorionak eman eta aintzatespena adierazi nahi dizkie herritarrei oro har eta, zehazki, emakumeei, beren mobilizazioarekin egiazko protagonista izan baitira zera lortzeko, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideek ez dezaten paira historikoa izanen zen atzerakada bat.”

Iruñean, 2014ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedienteak geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte.

SUSTAPEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Txema Mauleón Echeverría jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedienteak geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte.

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2014ko urriaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko urriaren 3ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer zuzemen egin dituen eta egiteko asmoa duen Gizarte Politiketako kontseilariak, Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazka bukatzen laguntzeko.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer zuzemen egin dituen eta egiteko asmoa duen Gizarte Politiketako kontseilariak, Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazka bukatzen laguntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak zenbait erabaki onetsi ostean eta Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetan lan-gatazka zenbait hilabetez luzatu ostean, hauxe jakin nahi dut:

Gizarte Politiketako kontseilariak zer zuzemen egin ditu eta egiteko asmoa du, Ezgaitasuna Artatzeko Zentroetako lan-gatazka bukatzen laguntzeko? Izan ere, gatazka hori eragina izaten ari da zerbitzuaren kalitatean eta langileen lan-baldintzetan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, hitzarmena negoziatzeko Nafarroako batzordea parlamentu-talde guztien parte hartzearekin deitzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, hitzarmena negoziatzeko Nafarroako batzordea

parlamentu-talde guztien parte hartzearekin deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Gobernuak noiz deituko du hitzarmenerako negoziazio-batzordea parlamentu-talde guztien parte-hartzearekin?

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Club Atlético Osasunak Nafarroako Gobernuarekin daukan zorrari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasunak Nafarroako Gobernuarekin daukan zorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du urriaren 23ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Club Atlético Osasunak daukan zorrari buruz eta zor hori dela-eta har litezkeen balizko erabakiei buruz Ogasuneko teknikariek egindako txosten teknikorik aurkeztuko al dio Nafarroako Gobernuak Parlamentuari? Halaber, zein da Gobernuaren iritzia zor horren berregituratzeari eta zor horri ematen ahal zaizkion konponbideei buruz?

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Club Atlético Osasunaren zorrari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak duen erantzukizunari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasunaren zorrari dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak duen erantzukizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urriaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Zein da Nafarroako Zerga Ogasunaren erantzukizuna Club Atlético Osasunaren zorrari dagokionez?

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán